

Gabadi

Aurkibidea

Udalerria: Gabadi

Sarrera



Amikuze eskualdean dago, Donapaleuko kantonamenduan. Ilharre du mugakide iparraldean, Arboti-Zohota ekialdean, Labetze-Bizkai mendebaldean, Aiziritze-Gamue-Zohazti hego-ekialdean eta Amendüze-Unaso hegoaldean. Ekonomia jarduera nagusiak laborantza (artoa, babarrunak, patata) eta abere hazkuntza (ardiak eta behiak) dira.

- **Biztanleak:** 218
- **Euskaldunak:** %10,23

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **13**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- IKER taldea

Hizlariak

Alexandre Bordagarai (1935-2010)



Alexandre Bordagarai Pagolan sortu zen 1935ko martxoaren 13an. 1960an [Pantxika](#)rekin ezkondua. Arotza zen. Pantxikaren aitaren aktibitatea segitu zuen (bera ere arotza zen) eta aroztegi berri bat eraiki, 1966an. XX. mendeko gerlek markatu zuten Alexandre, bereziki Algeriakoak. Arozgoaz aparte, Alexandre olerkaria eta kantaria ere bazen. Grabaketa denboran, Algerian idatzi kantu bat eman zigun.

Pantxika Bordagarai (1938-2016)



Pantxika Bordagaray Gabadin sortu zen 1938ko azaroaren 13an. Bere aita eta aitatxi arotzak ziren herriko plazan. Ostatua bazuten aroztegiaren ondoan. 1960an [Alexandre](#)kin ezkondu zen. Hiru haur ukan zituzten.

GAD-001 Hizlari ezezaguna (1938)

GAD-002 Hizlari ezezaguna (1938)

GAD-003 Hizlari ezezaguna (1938)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Haurtzaroa Pagolan eta Gabadin 1939-45 gerla aintzin (GAD-004/001)

Alexandre eta Pantxikak ez zekiten frantsesa eskolan hasi zirenean. Garai hortako Errepublikaren eskola guzietan bezala, errientak gaztigatzen zituen euskaraz ari ziren aldi oro. Alexandre Pagolako eskolan ibilia eta airea hartzen zutenean beren haur jokoak ziren « matasosa » eta kanikak. Pantxika, Gabadiko eskolan, hexurretan aritzen zen, eta pilotan eskolatik landa.

2. Haurtzaroa Pagolan eta Gabadin 1939-45 gerla denboran (GAD-004/002)

Bospasei urte zituen orduan Alexandrek eta Pagola ez zen zona okupatua ; halere bazen demarkazio muga bat pasatu behar zutena Donapaleura joan nahi bazuten. Pantxika aldiz, Gabadin, zona okupatuan bizi zen eta alemanak baziren nonahi herrian : beren ostatuan (gela bat eta bi ganbara hartuak zuzten), eskolan (alemanen « kasinoa ») etabar.

3. 1914-1918 gerlako oroitzapenak (GAD-004/003)

Gerla honen ondorioz, 3 osaba ez ditu ezagutu Alexandrek. Lehen gerla mundialaren garaian, nafartarrak zetozen Baxe-Nafarreko eta iparraldeko etxaldeen eskukaldi baten ematera (lur lantzen etabar). Primaderatik larrazkenara egoiten ziren. Bere etxean zegoen Kuantzitoren historia kondatzen digu Alexandrek.

4. Algeriako gerla (1954-1962) (GAD-004/004)

Bi urtez egon da han Alexandre bere lagunekin, gazte gazteak ziren, nihungo esperientziarik gabekoak. Beste batzuek bezala, kantu bat idatzi du Alexandrek han zenean eta kantu hori zuzenean ematen digu. Kantu hau eta beste frango aurki lirateke Xipri Arbelbiden liburuan : « Euskaldunak Algerian 1954-1962 ».

5. Arozgoa : eskuzko ofizioa (GAD-004/005)

Arozgoan ikasten zen nagusi baten etxean egonez kontratuz. Horrela egin zuen Alexandrek Oragarreko arotz batekin, etsamina pasatu arte Baionan. 1960ean ezkondu zen arotz baten alabarekin (Pantxikaren aldetik, hiru belaunaldietako gizonak arotzak ziren). Garai hartan, lan guziak eskuz egiten ziren (arotzaren lantresnetatik hasiz). Alexandrek lantresna xahar batzu erakusten dizkigu : itzeak, behi ferrak, bulonak.

6. Arotzaren egun guzietako lanak (GAD-004/006)

Laborantzako eskuzko tresnen egitea (aizkora, aihotza, aitzurra edo jorraia, uztarrien hodia) xorroxtea (brabana, goldenabarra, basa-ahia) edo konpontzea eguneroko lana zen. Kabalen ferratzea ere (behi, zaldi, asto) beste lan handi bat zen, ferrategian egiten zena, kabala airean ezarri (salbu zaldia). Arotzak jakin behar zuen kabala ferratzen kolpatu gabe (« itzeak jo » gabe). Ustegabeen itzea haragian sartzen bazion, bizpauru egun berantago kabalari arta bereziak ekarri behar zaizkion.. Arotzak jenden astelehenetako kloskak eta eskalapoinak ere ferratzen zituen.

7. Arotzaren urteko lanetan : erroten ferratzea (GAD-004/007)

Orgen eta eskorgen zurezko errotak burdin zintura batez inguratuak ziren. Burdinezko zintura horren izari onean egitea, eta errotaren inguruan ematea arotzaren lanak ziren. Gehienetan laguntza behar zuen hortarako. Bizpairu aldiz urtean bakarrik ferratzen zituen errotak. Lan hau desagertu da 1955etik hara.

8. Arotzaren fama (GAD-004/008)

Bi elementuek bazuten zer ikustekorik arotzaren faman : lanaren prezioak edo kostuak (zeinek lana merkeago edo garestiago) eta lanaren egiteko moldeak (kabala ferratzean zeinek ez kolpatzen, errotak ferratzean zeinek burdina hobekienik trenpatu eta gorritu). Ahotik beharrira famak bide egiten zuen...

9. Herritarren arteko bizia Gabadin 1950 inguruan (GAD-004/009)

Ostatuak toki garrantzitsua zuen herri ttiki guzietan, hala nola Gabadin non bi ostatu baitziren karrikan (Alexandren aroztegiak ostatu egiten zuen). Aroztegitik ostatura joaten ziren laborariak. Bi mahasturu ere baziren Gabadin, horietarik bat karrikan bizi zen, auzapeza eta errienta bezala. Oskiegilea ere bazen herrian, eiherazaina aldiz auzo herritik heldu zen (Ilharretik).

10. Bohamu ibiltariak Baxe-Nafarroan (GAD-004/010)

Bohamuek Baxe-Nafarroko herri batzuetatik pasatzeko ohitura zuten. Bertakoak ziren, Garazi aldekoak (Izpura-Donazaharre). Handik abiatzen ziren beraz, geldialdi bat eginez Xibaltarren (Donapaleuko auzo bat) Gabadin bukatzeko beren pidaia (Gabadi Biarnoaren mugan baita, ez zuten haratago segitu nahi). Urteko sasoin desberdinetan etortzen ziren (urde sasoinen beti hor ziren), aste bat edo bi egonez. Horien artean, baziren erratzak, saskiak (gaztaina eta urritzarekin) eta xare beltzak (mihimena eta urritzarekin) egiten eta saltzen zituztenak.

11. Etxetiarrek Amikuzen 1950 inguruan (GAD-004/011)

Horrela antolatua zen lurraren inguruko jabegoa : - etxeko jaun handiekin, bizpairu etxalde zuztenak eta horietan etxetiarrek ezartzen zituztenak. - laborariekin, etxeko jaun zirenak, beren etxearen eta lurren jabe izanez, gehiagokorik gabe. Etxetiarrek partean ziren : artoaren, arnoaren, ogiaren parte eman behar zuten nagusiari bai eta ere xingar azpi, antzara eta beste... 1955etik hara, hasi dira etxetiarren aldeko legeak aldatzen (« fermage » sistimarekin besteak beste : saria diruz ematen da, eta ez gehiago janarien bidez).

12. Lur Berriren sortzea Amikuze aldean (GAD-004/012)

Lur Berriren Kooperatibaren sortzeak ekarri du, besteak beste, laborarien salmentak kooperatiba horren bidez egin direla. Donapaleuko merkatuak, nahi ala ez, bere indarretik galdu du. Lur Berriren sortzearekin batera, laborarien lanmoldea ere aldatu da : laborariak arto hazitakoari eta ardi hazkuntzari lotu dira azkar.

13. Arotza eta debru zaharra (GAD-004/013)

Alexandre arotzak kondatzen digu arotza eta debru zaharraren ipuina.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com